

## LARRAZKENEKO GAU EPELA

Esteban Borromeo

*Bidarrai*

Zeru iluna argi-itzalean.

Otsoa garrasika hasi zenean,  
ardiak jauzika ibilki ziren: бага, biga, higa...  
Haize-hegoak fandangoa arinki pikatzen zuen: gau  
epela.

Izarren hautsak zure begien lilura eztia argitu  
eta martxa baten lehen notak aditu bezain laster,  
neskak ondoko mutikoari, «Oi Pello, haika mutil!»  
kantuz oihukatu.

Mikel Laboa.

Jaiki, altxa, zutitu!  
Paganoen exodoen antzera karrikak bete zituzten,  
tripa bezainbeste.  
Emazte batek negarrari ekin zion,  
eta herriko sheriffa tirokatu barik, hostoetan belar  
lehorrak itzultzerakoan,  
hiru txoritxo errudunek *positive vibration* batzuek  
erredentzioa abestu.

Bob Marley.

Alta, harmonikazalea zen.

Iparraldeko neska tamalgarriak bigarren *bob* bat

buru gainean jarri,

eta haizeak jotzen zuen bitartean, euri gogorra;

labar malkartsuetan arroak erortzekotan balira

bezala;

mutilari: «*Don't think twice, it's all right*».

Bob Dylan.

Karrikan baso tropikaletako anabasa kontraesane-

tan oinarritzen zen.

XXI. mendean hotza sentitzen ez denez, gure barre-

netatik hitz bat atera,

eta berriz ere zaindu beharreko jolasa arriskutsue-

gia zen.

Amets baten bila nintzela, galdera bat hurbildu zi-

tzaidan burura: nor nintzen ni?

Besta basatiak segitzeko, horra

bi zio.

Bata, gaualdiko eguraldi goxoaz gozatzea.

Bestea, bakoitzaren nortasuna eraikitzea.

Periodo musikalek bideraturiko dantzak pareten

mugimendu tektonikoak azkartzean,

bat-bateko egarri bortitzen artetik boga eta boga

ibiltzen ginen laino ilunak ikusten.

Edonor jaiotzerakoan, neskatxak berriro ere:

«Kaixo!».

Delirium Tremens.

Une horretatik goiti osotasuna jungle bat besterik

ez zen izan;

bakoitzaren izaera agerrarazten duen tartea.  
Pertsona guztiak bakean bizitzea irudikatzen,  
batzuen boterea zalantzan jartzen,  
herrien iraultza antolatzen,  
askatasunaren bidea irekitzen...

Baina betikoa: «Pim! Pam! Pum!».

Txabi Etxebarrieta.

Herri ezberdinak, amets berdinak.

Baina betikoa: «Pim! Pam! Pum!».

Thomas Sankara.

Gero zulo beltza baizik ez zen gelditu, neurrigabe-  
tasunezko amnesia.

Gau amaigabe eta mugagabea izan zen, baina  
oroitzapenak labur.

Ni han egon omen nintzen; haiekin, zuekin, hare-  
kin, zurekin edota hirekin.

Zeru iluna argi-itzalean.